


Oroitzapenak arakatzen



Oroitzapenen bidezidorrean, ibiliaren ibiliaz bi pertsonaia berezien irudiekin topo egiten dut: Antonio M^a Labayen (1898/1/12-1994) bata eta M^a Dolores Agirre (1903/6/8-1997/8/) bestea. Bi antzerkilari ospetsu hauen irudiak, antzerki oroitzapenetan murgiltzen dit. Hauek hainbat izanik Erreteriarrekin loturak izan zituztenei gainbegira emango diet.

Aurrera doan urte honetan, Antonio M^a Labayenen jaiotzaren ehun garren urte muga ospatzen da. Antzerkilari ospetsu honi esker euskal antzerkiaren kondaira ezagutzen dugu. Gainera 27 antzerki obra idatzi zituen eta 10en bat obra itzuli besteen artean: Durrenmant, Castelao, Frich eta Plautorenak.

Labayen jaunaren bi antzerki: "Malentxu alargun" eta "Petrekillo", Ereintza antzerki taldeak taularatu zituen, lan hauen taularatzea hain gogoratua zaigun Andoni Kortaren eskutik izan zen.

M^a Dolores Agirre, irakasle ospetsua, langile aparta izan da, Jaungoikoaren deia hartu zuen arteraino euskararen irakaspenean murgildua egon zen.

Euskal antzerkiak kondairan zehar izan duen erakunde laguntzaileena Donostiako Iztunde Eskola izan da. 1915 urtean sortzen da Alzaga zuzendari zuela. Eskola honen helburua euskara eta euskal antzerkia irakatsitzea zen. 1933 urtean Alzaga erretiratzen da eta honen lekua, lehiaketa bidez M^a Dolores Agirrek hartzen du. M^a Doloresek euskara irakasten duen bitartean, Alzagak antzerkiak antolatzen jarraitzen du.

1936ko gerla medio gure erakundea ixiltzen da. Gerla ostean, 1953 urtean, berriro Iztunde Eskola euskarazko antzerkiak eskaintzen hasten da, M^a Doloresen eskutik. Urte honetan "Santo Tomas" egunez Kurtaal antzokian antzeztu zuten antzerkia "Ramuntxo" izan zen. Irakurleari, urte honetako euskarak zuen egoeraz, pixka bat bada ere, jabetzeko aholkatuko nioke "El libro negro del euskera" J.M. Torrealdei jaunak idatzitakoa irakurtzea.

Agirre andereak mende laurdena baino gehiago antzerkiak plazaratuaz jarraitu zuen eta epe honetan 31 antzerki desberdin taularatu zituen, hauetatik 12 itzulpen izan ziran. Itzulpen gehienak Agirre berak egindakoak. Hara nola: Lorca, Casona, Gazzo...

Lan haundi honetan erreteriar hainbat zebiltzan, batzuk antzezlari lanetan ari ziren bitartean besteak aldiz teloiaren atzean ibiltzen ziran.

Gaur oroitzapena baizik ez zaigu gelditzen bainan itxaropenez. Bi maisu hauek euskal antzerkiari emandako bultzada itzala izan da. Eta etorkizunean Erreteriarren sortzen ari diren kimu berriak euskal antzerkiaren zuhaitza sendotuko dutelaren zalantzarik ez dut-Hala bedi.